

1. Helburua eta xedea

Kutxa Fundazioak Gipuzkoa zuzenagoa, kultuagoa, sortzaileagoa eta iraunkorragoa izan dadin lagunduko duten ekintzak sustatu eta bultzatzeko asmoa du. Hori lortzeko, gaitasun kritikoa eta konpromisoa sustatu behar direla uste du, eta, testuinguru horretan, Gipuzkoako talentu gazte eta konprometituarentzako **INSPIRA GAZTEAK Sarien** (aurrerantzean **Sariak**) bigarren edizioa jarri du martxan.

Sari hauen helburua Gipuzkoako 20 eta 30 urte bitarteko bost gazte saritzea, babestea eta aintzatestea da, beren ibilbide pertsonal formatibo edota profesionalagatik, lidergoagatik eta hazteko potentzialagatik, ekintzaitzarako gaitasunagatik, merezimenduengatik eta/edo beste pertsona batzuentzat eredu edo erreferentzia izateagatik nabarmentzen direnak.

Kutxa Fundazioak, horrela, Gipuzkoako eraldaketa ekosozialaren aldeko konpromisoa erakusten duten bizitza-ibilbideak dituzten gazteak saritu nahi ditu: gizarte, ingurumen, hezkuntza-berrikuntza eta/edo ezagutzaren sorkuntza eta sustapeneko kausen aldeko konpromisoa dutenak, alegia. Era berean, Kutxa Fundazioak, beren etorkizuneko ibilbidea bideratzen lagundu ahal izango die, ikusgarritasuna eta babesa emango eta Kutxa Fundazioak bultzatutako proiektu eta programetan parte hartzea proposatu ahal izango die, Gipuzkoako gazteentzat erreferente bihurtzeko. Kutxa Fundazioak saritutako gazteen eta Fundazioaren berezko ekimenen arteko sinergiak sortzen ere lagunduko du.

2. Sarien xedea

Aurreko atalean aipatu den bezala, hautagaiek egindako ibilbideak trantsiziorako esanguratsuak izatea bilatzen da, horien fokua gizarte-, ingurumen-, hezkuntza-, berrikuntza-, ekintzaitza-, ezagutza-sustapen ekimenetan, zein ekimen misto edo diziplinartekoetan jarri dutenak.

Kutxa Fundazioaren ustez, Gipuzkoa kohesionatuagoa eta gizarte-ongizate handiagokoa ezinezkoa izango da gizarte-justiziarik gabe, garapen jasangarririk gabe gizarte-justiziarik izango ez den bezalaxe. Horretarako, kultura eta ezagutza, pentsamendu kritikoa eta aukera-berdintasunak sustatu behar dira gaur egun dauden joerak murriztuz.

Hala, ekimen honen bidez, gure lurraldearen eraldaketa sozialean funtsezko zeregina duten gazte liderrak eta konprometituak saritzea bilatzen dugu, aldaketarako ekimenak gidatuz edo/eta lankidetzaren proiektuetan parte hartuz, bai akademian, bai beraien lantokietan, enpresa-egituran edo iragazi asmorik gabeko erakundeetan, auzoetan eta abarretan. Gizarte-kontzientzia duten gazteak, gizarte-berrikuntzaren ikuspegitik arrakalak (genero, kultura, ekonomiak, digitala, laboralak) eta desberdintasun

sozialak murrizteko, proiektu eta ekintzak sustatzen ari direnak. Elkartasunaren balioa zaintzen duen, aberastasunaren banaketa eta gizarte-mugikortasuna, ahalduntze kolektiboa, pertsona ahulen edo zaurgarrien premiei arreta ematea eta desberdinen arteko bizikidetzak sustatzen dituen gizartearen lankidetzan eta erantzunkidetasunez diharduten gazteak.

Kutxa Fundazioak Gipuzkoa jasangarriago bat bistaratzen du, ingurumen izaerako erantzunak ematen dituen, problematikak eta horien kausak identifikatuz eta ingurumenean eta lurraldeko gizarte sarean eragina izango duten konponbideak garatuz. Planetaren ongizateari eta iraunkortasunari ikuspegi ekozentrista batetik laguntzen dioten proiektuak bultzatzen ari diren gazteak saritu nahi dira, trantsizio energetikotik hasi, kontsumo iraunkorretik, dezeleraziotik edo ekonomia zirkularretik, eta ekosistemen kudeaketa iraunkorreraino eta espezieen eta biodibertsitatearen kontserbazioaren aldeko borrokaraino. Aktibismo mediatikotik, mobilizaziotik, salaketatik, eragin politikotik, ikerketarik edo boluntariotzatik inplikatzeko diren gazteak.

Kutxa Fundazioak aldaketarako motor eta trantsizio ekosozialerako tresna gisa ulertzen du hezkuntza; horregatik, hezkuntza-testuinguru berrietan ikertzeko eta esperimentatzeko apustua egin duten gazteak saritzea ere bilatzen du, Gipuzkoako hezkuntza-komunitateak ez hain zatikatuak edo holistikoagoak eta inklusiboagoak diren ikaskuntza-ereduetarantz aurrera egin ahal izateko proposamen pedagogiko berriak eginez, STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika) estrategiaren ildotik. Hezkuntza-berrikuntzarako ekimenak garatzen dituzten gazteak, teknologia berrien erabilera zabalduz, gamifikazioa txertatuz eta jakin-mina eta pentsamendu konplexu eta kritikoa bultzatzen duten metodologia aktibo eta kolaboratiboekin esperimentatuz.

Gipuzkoa kultuagoa eta sortzaileagoa sustatzea bere aurrerapen sozialaren alde egitea da. Beraz, gazteak saritu nahi ditugu, arteen bidez emozioak adierazten eta eragiten dituzten ekimenekin, aldaketa posible dela irudikatzen, pentsamendu kritikoa sustatzen eta gogoeta egitera eta begirada zabalagoa izatera gonbidatzen gaituzten ekimenekin. Ikerketa- edo ezagutza-sustapeneko proiektuak dituzten gazteak, errealitate desiragarriak amestera eramango gaituztenak eta horietara hurbiltzeko tresnak sortuko dituztenak, gizarteko, ingurumeneko eta bizitzako arazoak eta egoerak konponduko dituztenak, ingurunearen eta pertsonen kalitatea hobetzeko. Ikerketaren balioa sendotzen, prozesu zientifiko, teknologiko eta artistikoei laguntzen, gizarte-eztabaida sustatzen eta ezagutza zabaltzen laguntzen ari diren gazteak aitortu nahi ditugu, Gipuzkoako gizartearen ahalduntzeko.

Era berean, ekimen ekintzaileak lidergo-modu berrietan eta ingurunearekiko konpromisoan aztertzeko, hasteko eta gauzatzeko prest dauden gazteak behar dira, garapen ekonomiko jasangarriagoa eta inklusiboagoa sustatzeko. Helburu horrekin, prestakuntza eta ibilbide profesional desberdina duten gazteak saritzea bilatzen dugu, baldin eta gizarte-ekintzailetzako proiektuak edo enpresa-ekimen berritzaileak

bultzatzen ari badira eta lurraldean inpaktu ekosozialeko potentzial argia badute. Baina bideak ez dira linealak izaten, bihurtuak baizik, eta bidegurutzak dituzte. Justizia sozial iraunkorra jasangarritasunean oinarritzen da, gizarte kultuenek tresnak dituzte hezkuntza-berrikuntzaren beharra ulertzeko, eredu bidezkoago eta iraunkorragoetara igarotzeko lidergoa behar da, enpresa-ekintzaitzak gizarte inklusiboago baterako baliabideak eman diezazkiguke... Era berean, jarduera-eremu jakin batean fokua jartzeaz gain, hainbat kausatan edo aldaketak modu holistikoagoan proposatzen dituzten mugimenduetan parte hartzen duten gazteak bilatzen ditugu, askotan diziplinarteko taldeetan lan eginez eta trantsizioaren alderdi desberdinei helduz.

3. Sariak

Bost Inspira Gazteak Sari emango dira, bakoitzak 15.000 euroko zuzkidura ekonomikoa izango du.

Kutxa Fundazioak sariren bat eman gabe uztea erabaki ahal izango du, baldin eta jasotako hautagaitzen sarituak izateko merezimendu nahikorik ez dutela uste badu.

Sarien zenbatekoak zerga-legeriaren arabera dagozkien atxikipenen mende engongo dira.

4. Hartzaileak eta betekizunak

Honako baldintza hauek betetzen dituztenek izango dute **Sarietarako** aukera:

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 20 eta 30 urte bitartean izatea.
2. Gipuzkoan jaioak izatea edo bertan bizitzea.
3. Hautagaia Gipuzkoatik kanpo errolatuta baldin badago edo atzerrian bizi bada, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:
 - Gipuzkoari egiten dion ekarpena: bere ibilbidearen zati bat edo ibilbide osoa gure lurraldetik kanpo garatzea erabakitzeke izan zuen arrazoia, baita ere egindako lorpenetatik zeintzuk lagun dezaketen Gipuzkoaren aurrerabidean eta eraldaketan.
 - Erretornu edo itzulkina: Gipuzkoara itzultzeko edo ekimen edo proiekturen bat Gipuzkoan gauzatzeko asmorik dagoen edo urratsak eman diren baloratuko da.
4. Ibilbide garrantzitsua izatea. Edozelan ere, hautagaitza motibatzen duten merezimenduek deialdia argitaratu aurretik egiaztatutako inguruabarrei

buruzkoak izan beharko dute.

5. Sarituei dagokienez 11. epigrafean aurreikusitako betebeharrak betetzea.
6. Hautagaitzak zuzeneko inplikazioa izan beharko du Gipuzkoako gizartearekin. Ez dira onartuko lurralde honetatik kanpo garaturiko ekimenak eta merezimenduak dituzten hautagaitzak.

5. Eskabidea eta aurkezteko epea

Hautagaitzak www.kutxafundazioa.eus web-orrian "Deialdiak" atalean eskuragarri dagoen formularioaren bidez aurkeztu beharko dira. Inprimakiak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira eskuragarri.

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko otsailaren 3ean irekiko da, 09:00etan, eta 2025eko martxoaren 23an amaituko da, 14:00etan.

Ez da onartuko ezarritako epetik kanpo jasotako eskabiderik, ez eta horien aldaketarik ere, garaiz eta behar bezala aurkeztu ondoren.

Eskatzaileek agiri bidez egiaztatu beharko dute, hurrengo epigrafean aurreikusitako moduan, dagokion kategorian **Saria** jaso ahal izatea justifikatzen duten nolakotasunak eta merezimenduak dituztela.

Edizio batean saritutako pertsonak ezin izango dute hurrengo deialdietan parte hartu.

Sarituak izan ez diren pertsonak, aurreko edizio batean izendatuak izan badira ere, hurrengo deialdietan parte hartu ahal izango dute.

Eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak onartzea.

6. Eskabidea osatzeko beharrezko dokumentazioa

Hautagaitza aurkeztea erabakitzen dutenek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidea osatzeko:

1. **Saria** lortu nahi duen ibilbidearen banakako formulario edo inprimakia, dagokion kategorian, alderdi garrantzitsuenak azalduz eta eskabidearen oinarri diren merezimenduak egiaztatuz.
2. Motibazio-gutuna. Gutun hori idazki pertsonal bat izango da, eta bertan **Sari** honetara aurkezteko zio edo arrazoia zehaztuko da.
3. Eskatzailearen *curriculum vitae*.

4. Aurkezpen pertsonala jasotzen duen laburpen-bideoa ibilbidearen alderdirik azpimarragarrienekin, gehienez bi minutuko iraupenekoa eta/edo tamainaz ez 300MB baino gehiagokoa. Kutxa Fundazioaren webgunean argitaratu ahal izango da, baita sari-banaketan ere, baldin eta **Sariren** baterako izendatua bada.
5. 1080x1080 px-ko argazki pertsonala (bustoa), Kutxa Fundazioaren webgunean eta **Sari**-banaketan argitaratu ahal izango dena.
6. Alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak: lanak, argitalpenak, argazkiak... (gehienez hiru dokumentu).
7. Gomendio-gutuna. Gutun hori aukerakoa izango da, eta ospe edo izen handiko erakunde, kolektibo, elkarte edo/eta pertsona batek hautagaitzari, bere ibilbidearen esparru nagusian, laguntza emateko idatzitakoa izango da.

Hautagaitza justifikatzeko agiri horiez gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

- NANaren edo AIZaren fotokopia bi aldeetatik.
- Gipuzkoan erroldatuta egotearen ziurtagiria.
- Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela eta, lan-jarduera izanez gero, Gizarte Segurantzarekiko ordainketak ere egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasunaren erantzule izango dira parte-hartzaileak.

Kutxa Fundazioak dagozkion berrikuspenak egin ahal izango ditu hautagaiek deialdiaren esparruan emandako informazioa egiaztatzeko.

7. Eskabideak zuzentzea

Berariaz, automatikoki baztertuko dira formularioa behar bezala beteta aurkezten ez duten edo dokumentazioa 6. epigrafean azaldutako baldintzetan aurkezten ez duten hautagaitzak. Hautagaitzak zuzendu daitezkeen akatsak balitu, Kutxa Fundazioak horren berri emango dio eskatzaileari, jakinarazi eta 5 egun balioduneko epe luzaezinean zuzendu ditzan.

Era berean, Kutxa Fundazioak, komeni dela iruditzen bazaio, edozein argibide eskatu ahal izango dio eskatzaileari aurkeztutako hautagaitzari buruz. Deialdiaren oinarriak osorik betetzen dituzten hautagaitzak bakarrik baloratuko dira, eska dakizkiekeen akats-zuzenketak barne. Ezarritako epean zuzendu ez diren hautagaitzak deialditik kanpo geratuko dira.

8. Balorazio-prozeduraren garatzea

Kutxa Fundazioan administrazio-baldintzak betetzeari buruzki lehen balorazioa egin ondoren, erakundetik kanpoko bi pertsonak, talentuen identifikazioan, lidergoaren analisian eta gobernantza kolaboratiboaren inguruko proiektuen garapenean adituak, hirurogei hautagaitzen aurre aukeraketa bat egingo dute, bideoetan eta galdetegian emandako erantzunetan oinarrituz.

Ondoren, Kutxa Fundazioko teknikariek osatutako batzorde batek, hautagai-zerrendatik proiektuaren xedea eta helburua hobekien betetzen dituzten eta trantsizio ekosozialarekin hobekien lerrotatzen diren hamabost hautagaiak hautatuko ditu.

Azkenik, adituek osatutako kanpoko epaimahai batek aurrez hautatutako hamabost hautagaitzak aztertuko ditu eta elkarrizketa pertsonalak egingo ditu. Kutxa Fundazioak izendatuko du epaimahai hori, eta bere garrantzi pertsonal eta profesionalaren arabera aukeratutako 5 kidek osatuko dute. Epaimahai horrek saritutako bost pertsonak aukeratuko ditu, eta epaia 10. epigrafean aurreikusitako moduan jakinaraziko da.

Saria eskuratu ahal izateko, nahitaezkoa izango da epaimahaiarekin izandako elkarrizketara joatea, zuzenean edo bide digitaletik.

9. Balorazio-irizpideak

Hautagaitzen balorazioa honako hauen arabera egingo da batez ere:

- Ibilbidea: ekimenak eta proiektuak garatzea bultzatu duten asmoak, dedikazioa eta oinarri hauen bigarren epigrafean zehazten diren helburu zehatzetarako ekarpenean erakutsitako konpromisoa baloratuko dira.
- Motibazioa: Lortu nahi diren xedea eta helburuak bultzatzen dituzten barne-eta kanpo-faktoreak baloratuko dira.
- Pentsamendu kritikoa: Gipuzkoako gizartearekiko begirada kritikoa eta arazoibideen oreka aztertu eta ebaluatzeko gaitasuna baloratuko dira, betiere arazoak konpondu eta emandako datuetan oinarritutako erabakiak hartzeko.
- Ekimenak eta lorpenak: Ibilbide pertsonala markatu duten mugarriak eta proposatutako helburuekiko erdietsitako lorpen-maila (edo inpaktua) baloratuko dira.
- Lidergoa: beste pertsona batzuk helburu komun batean inplikatzeko trebetasunak eta taldearen fisionomia baloratuko dira, halakorik balego.

Hurrengo hauek ere baloratuko dira, baina neurri txikiagoan:

- Balioak eta erreferentziak: Aurkeztutako hausnarketa baloratuko da, ibilbide pertsonala gidatu duten balio nagusiei eta balio horiek beren ibilbidean proiektatzen lagundu duten erreferentzia edo pertsona inspiratzaileei dagokienez.
- Inpaktu-ahalmena eta itxaropenak edo espektatibak: etorkizunari begira, gizarte-eraldaketan lortu nahi dituen inpaktuak balioetsiko dira, proiektuak garatzen jarraitu nahi duen eremutik, eta horiek lortzeko proposatzen edo planteatzen dituen eredu eta lankidetzak estrategikoak. Era berean, helburu pertsonalak eta hazkunde pertsonalerako itxaropen edo espektatibak baloratuko dira, bai eta norberaren hobekuntza aztertzeko gaitasuna ere.
- Erresilientzia: ibilbide pertsonalean eragina izan duten oztopoak gainditzeko gaitasuna eta oztopo horiek nola landu eta gainditu diren baloratuko da, baita balizko porrot-esperientzietatik lortutako ikaskuntzak ere.
- Izaera berritzailea: ibilbideak ideia disruptiboak izatea eta elementu berriak eta bereizleak izatea baloratuko da, bai jarduteko moduan, bai planteamenduan edo garapenean.
- Aurkezpenaren kalitatea: proposamenak ulergarria izan behar du, asmoa eta ibilbidea argi utzi behar ditu, estiloa eta hizkuntza zaindu behar ditu.

Era berean, beste alderdi batzuk ere kontuan hartuko dira, hala nola nabaritasun edo ospea, beste pertsona edo/eta kolektibo batzuei transferitzeko aukera eta, halakorik balego, proiektuaren inspirazio-balioa, 2030 Agendaren (GJH) helburuekin bat etortzea, aurkezpenaren kalitatea eta euskarak ibilbidean duen presentzia.

Epaimahaiak sariren bat eman gabe uztea proposatu ahal izango du, baldin eta aurkeztutako hautagaiek ez badute behar adinako meriturik.

Saria lortzea bateragarria izango da beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu berarekin emandako beste sari edota laguntza batzuekin.

10. Ebazpena

Epaimahaiak 2025eko maiatzaren 19tik 30era eztabaidatu eta erabakiko ditu **INSPIRA GAZTEAK sariak**. Epaimahaiaren ebazpena eta sarituen nortasuna 2025eko ekainaren 26an egingo den sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko dira, eta "www.kutxafundazioa.eus" webgunean eta Kutxa Fundazioaren sare sozialetan argitaratuko dira, ekitaldia egiten denetik aurrera. Izendapena onartzeak berekin dakar sariak emateko ekitaldi publikora joan beharra.

11. Sarituen betebeharrak

Sarituek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. **Saria** erabaki eta eman aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzea.
2. **Saria** ematea eragin zuten betekizun eta baldintzetan gertatzen diren, baldin eta gertatzen badira, aldaketen berri ematea Kutxa Fundazioari.
3. Eskabidea egin eta gero helburu bererako jasotako laguntzen berri ematea.
4. **Sariak** emateko ekitaldira joatea, ezinbesteko kasuetan izan ezik, nolana ere, Kutxa Fundazioak onartu beharko duela hori.
5. KUTXABANK S.A.n kontu bat edukitzea bere izenean, eta KUTXA FUNDAZIOARI jakinaraztea info@kutxafundazioa.eus helbidearen bidez; **bertan sartuko da Sariari dagokion zenbatekoa.**
6. **Inspira Gazteak sarien** hurrengo edizioan sariak eman dion ibilbidea/ aurrerapena aurkezteko konpromisoa hartuko dute.

Oinarrietakoren bat ez betetzea kanporatzerako arrazoia izan daiteke.

12. Datuen babesa

Arduraduna	Kutxa Taldea: Kutxa Fundazioa, Kutxagestion Zerbitzuak, S.L.U. eta Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa.
Helburua	Sarien betekizunak baloratzea. Sariak hautatzea. Pizgarria merezi duten pertsonen emango zaizkien ordainsari ekonomikoak kudeatzea. Pertsona izendatuak eta sariak ezagutaraztea eta sustatzea Kutxa Taldearen webguneetan, plataformetan, sare sozialetan eta Interneteko kanaletan. Sariaren kontserbazio historikoa.
Datu pertsonalen kategoriak	Identifikazio-datuak. Ekonomia- eta finantza-datuak. Informazio akademikoa. Beste datu batzuk: saria edo pizgarria emateko eskatzen diren betekizunei buruzko informazioa. Ahotsa eta irudia.
Legitimazioa	Berriazko adostasuna (DBEO 6.1.a art.).
Jatorria	Zuzenean interesatuarengandik.
Hartzaileak	Datuak gaian eskumena duten agintari, organismo eta erakunde laguntzaileei laga ahal izango zaizkie, hala nola eskabideak baloratu eta emateko erabakitako epaimahaiei. Interesatuak aurkeztutako bideoa, argazkiak eta datu pertsonalak eta biografiak eta ibilbideak doan zabaltzea, denbora- eta leku-mugarik gabe, bere web-orrian edo Kutxa Taldeak zabalkunde horretarako erabiltzen duen edozein bitarteko edo euskarri (sare sozialak, prentsa, dosierak...) erabiliz.
Kontserbazioa	Oro har, saritutako pertsonen datu guztiak 10 urtez gordeko dira, Kapitalen Zuritzea eta Terrorismoaren Finantzaketa Prebenitzeko 10/2010 Legeari dagokionez. Data horretatik aurrera, interes historikoagatik, izen-abizenak, sariaren nota, data eta arrazoia/karrera, baita irudia eta ahotsa ere, baldin badaude, jasoko dira. Sari gabeko pertsonen kasuan, datu guztiak 2 urteko epean gordeko dira, edo erreklamazioak egiteko epea amaitu arte. Bi urtetik aurrera, emandako datu guztiak ezabatuko dira. Interes historikoa dela eta, izen-abizenak eta aurkeztu diren eremua gordeko dira.
Eskubideak	Interesdunak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio kontrol-agintaritzari, bai eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramateko eta bere datu pertsonalei buruzko banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak egikaritu ere, eta emandako baimena ezeztatu ahal izango du, idatziz, Kutxa Taldearen helbide sozialera (Mikeletegi pasealekua 79-81, Donostia) edo info@kutxafundazioa.eus posta elektronikora bidalitako jakinarazpenaren bidez.
Informazio gehigarria	Datuen Babesari buruzko informazio gehigarria gure Pribatasun Politikan ikus dezakezu gure webgunean (www.kutxafundazioa.eus).

Interesatuak bermatzen du uneoro informaturik izango duela Kutxa Taldea berak emandako informazioari dagokionez, eta lehenbailehen jakinaraziko diola berak emandako datu pertsonaletan gertatzen den edozein aldaketa, horrela Kutxa Taldeak erabiliko duen informazio pertsonala uneoro eguneratua eta zehatza izan dadin.

13. GARRANTZITSUA

- **Betekizunen eta oinarrien azken interpretazioa Kutxa Fundazioari dagokio.**
- **Kutxa Fundazioaren erabakia apela ezina izango da.**